

**1 ZENBAKIA****2011ko urria****AGURRA**

Etxarriar horri:

Badie daunekos 4 hillate udal berriye sortu zala, eta eskerrak eman nehi ttugu tarte hontan herriyen jaso diaun launtzangati eta babesangati. Hasiera guziek latzak die, eta asko do eitteko, beye hortan gailtze buru-belarri.

Bakizubie udal batzordiek martxan jartzen ai gala, herritarraikin batia lan eitteko. Etxarriar guziek parte hartzia gonbiyetu nehi ttugu, eta nabarmendu nehi diau udalak etxarriarrandako ein nehi dela lan, beye etxarriarrakin batia. Anime zettez, eta eman zazu izena batzorden batien.

Beste alde bateti, jakiñe da guai Euskal Herriye bide berri betien hasik dola, gatazkai konponbidie emateko nazioarteko taldie sortu dala, eta euskaldun guziek etorkizun demokratiko bati beire gaudela. Beye herritarrok ez gaa besteen espia geldittu bier. Guai da momentube ahalein guziek eitteko. Etxarriar guziek animetu nehi ttugu bakiaan, askatasun demokratikuaan, giza eskubidien eta autodeterminaziyo eskubidiaan alde lan eittia. Etxarriar batek esaten den bezela, "gurdiye etxe atayen dakau, beye guai belarra ganboikua itzo bierra do".

Akatzeko, jakiñazi nehi diau udalak helbide elektroniko bat sortu dela herritar guzien ekarpenak jasotzeko: partehartu@etxarriaranatz.com. Yozin zalantza baldin bakazu, o yozin proposamen, bieldu helbide hortaa, gu jakiñaan geiñen yoteko.

ALKATETZA

HAUTETSIEN ARDURAK UDALETIK KANPO

0 buletinean hautetsien udal barneko arduren berri eman zitzaizuen. Oraingoan, hautetsiek udaletik kanpo hartu dituzten arduren berri eman nahi dizuegu:

Musika Eskolako Batzorderako ordezkariak:

Iñigo Lazkoz Lekuona
Edurne Igoa Lizarraga

San Donato Ikastetxearekin koordinatzeko ordezkaria:

Edurne Igoa Lizarraga

Andra Mari Ikastolarekin koordinatzeko ordezkaria:

Iñigo Lazkoz Lekuona

Sakanako Mankomunitaterako ordezkariak:

Aitor Karasatorre Muguruza
Txeli Erdozia Anso
Maider Goñi Errazkin

Mankomunitateko Euskara Batzorderako ordezkaria:

Eneka Maiz

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitaterako ordezkariak:

José Ignacio Bakaikoa Aristorena
Eneka Maiz Ulaiar
Miguel Ángel Goñi Ixurko
Edurne Igoa Lizarraga
Iñigo Lazkoz Lekuona
Txeli Erdozia Anso

UEMArako ordezkariak:

Eneka Maiz Ulaiar
José Ignacio Bakaikoa Aristorena

Ebroko Konfederazio Hidrografikorako ordezkaria:

Miguel Ángel Goñi Ixurko

EUDELERako ordezkaria:

José Ignacio Bakaikoa Aristorena

Aralar-Urbasa Elkarterako / Garapen Partzuergorako ordezkaria:

Aitor Karasatorre Muguruza

Cederna-Garalurrerako ordezkaria:

Txeli Erdozia Anso

Bestelako izendapenak:

Aitor Karasatorre Sakanako Mankomunitateko lehendakari izendatu dute, eta Eneka Maiz zuzendaritzako kide izendatu dute UEMAn (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea).

LIBERAZIOAK ETA ORDAINSARIAK

2011ko abuztuaren 30eko Osoko Bilkuran alkatearen liberazioa eta ordainsariak zein izanen diren erabaki zen. Aurretik zegoen planteamenduarekin jarraitzea erabaki zen.

Alkateak lanaldi osoa izanen du, hau da, 35,40 ordu astean. Eta soldata honako hau izanen da: 29.374,24 € (+ KPIa) gordin urtean, hamabi hilabetetan banatua, eta bi lansari (2.098,16 € gordin bakoitza).

IKASTOLA ERAIKITZEKO LANAK HASI DIRA

Etxarriko udalak Andra Mari ikastolari eraikin berria egiteko lur-saila esleitu dio. Hitzarmena abuztuaren 22an sinatu zen, bi aldeetako ordezkariak bilduta. Aurretik, Etxarriko udalak Udaleko Plan Orokorra aldatu zuen, lur-sail bat erabilera publiko anitzerako egokitzeko, eta besteak beste, Andra Mari Ikastola eremu horretan eraikitzeko.

Esleipen horren bidez, Andra Mari Ikastolako Guraso Elkarteari 420 lur-eremua 99 urterako utzi zaio, eraikin berria egin dezan. Baldintzen pleguan ageri da Ikastolak udalari urtero 30 euroko kanona (+ KPIa) ordaindu behar diola.

Bestalde, alkatearen 111/2011 ebazpenaren bidez, Ikastolari baimena eman zitzaion sastrakak garbitzeko eta lurrak egokitzeko. Halaber, garbiketa eta egokitze lan hauen isuriak 3. poligonoko 420 lur-eremuan dagoen zabortegian botatzeko baimena ere eman zitzaion.

HAURTZAINDEGIAK AURRERA, ZAILTASUNAK ZAILTASUN

Irailean beste ikasturte batez Danbolintxulo Haurtzaindegiak atea ireki ditu, eta martxan da dagoeneko, zailtasunekin bada ere. Izan ere, matrikulazioak behera egin du, eta arazo ekonomikoak muturrekoak izan dira, baina gurasoek ahalegin handiak egin dituzte aurrera jotzeko.

Etxarriko Danbolintxulo Guraso Elkarteak hiru urtetik beherako haurrentako aisialdiko jarduerak antolatzen ditu, eta horretarako gurasoek hileroko diru kopuru bat ordaindu behar izaten dute. Haurtzaindegi-zerbitzu hori Etxarriko udalaren laguntzarekin egiten da.

Udalak beharrezko instalazioak elkartearen esku jarriak ditu, eta horien mantenuaz eta garbiketaz ere arduratzen da. Horretaz gain, 2009an sinatutako hitzarmenean biltzen denez, *“gehienez ere 6.000 euroko diru-laguntza ematen da”*. Hala ere, azken bi urteotan, haurtzaindegiaren bideragarritasuna bermatze aldera, 9.000 euroko laguntzak eman dira (hitzartutako 6.000 euroak, eta ez-ohiko 3.000 euro gehiago).

2011ko irailean abiatu den ikasturtean, matrikulazioa nabarmena jaitsi da, hamaika haurrek baino ez baitute izena eman. Erabiltzaile gutxiago daudenez,

familiengandik datorren diru sarrera ere txikitu egin da, nahiz eta familiek hilero ordaintzen duten kuota igo den. Gastuak,ordea, ez dira aldatu.

Udalari dagokionez, guraso elkarteko ordezkariekin izandako bileretan, udaltalde berriak 2012ko urterako gutxienez 6.000 euroko diru-laguntza emateko konpromisoa hartu du, nahiz eta oraindik udaleko egoera ekonomikoa zehatz-mehatz zein den ez jakin.

Kontuan hartu behar da gurasoekin 2011eko abuztuan hasi zela elkarlana, eta orduan goizegi zela 2012ko aurrekontuei buruz hitz egiteko. Ondorioz, orduan ezin zen erabaki kopuru hori handitu edo ez. Beraz, udalak 2009an sinatutako hitzarmena betetzeko konpromisoa hartu du, eta aurrekontuak egiteko unean haurtzaindegiaren egoera berrikusiko da. Hala ere, Nafarroako Gobernuak udaletako diru sarreretan egingen dituen murrizketak ikusirik, diru-laguntzak handitzeko aukera zaildu baino ez da egin.

LUDOTEKA BERTAN BEHERA GELDITU DA, ESKARI FALTAGATIK

Ikasturte honetan ere ludoteka martxan jartzeko eskaintza egin du udalak, *Mugaibe* aisialdi enpresaren bidez. Baina izena emateko epea amaitu da, eta izena oso haur gutxik eman dutela ikusita, ludoteka bertan behera gelditu da, egitasmoa bideragarria ez delako.

Hori horrela izanda, udala aztertzen ari da eskari faltaren arrazoiak zein izan diren, datorren ikasturtean bere eskaintza herritarren eskakizunetara egokitzeko. Musika Eskola berriko gela batean egon behar zuen ludotekak aurten. Ikusirik ez dela hala izanen, udalak leku hori egon daitezkeen beste behar batzuetara egokituko du.

LUDOTEKA AUTOGESTIONATUA SORTZEKO PROPOSAMENA

Udalak ikusi du Etxarriko gurasoek ez dutela espazio komunik gaur egun neguko arratsaldeak haurrekin pasatzeko. Arazo horri irtenbidea emateko, udalak ludoteka autogestionatu bat sustatu nahi du. Alegia, proposamena da udalak gurasoen esku lokal bat uztea, eta eguneroko zainketa lanen ardura gurasoek bere gain hartzea. Proiektu honetan parte hartu nahi baduzu, edo besterik gabe informazioa jaso nahi baduzu, bilera batera gonbidatzen zaitugu. Bileran hainbat aukera aztertuko dira interesatuekin, denon artean formula egokiena aurkitzeko.

Eguna: azaroaren 9an, asteazkenarekin.

Ordua: 18:00etan.

Tokia: Udaletxean.

BASOKO IBILBIDEAK ETA AHUNTZETXEA BERRITU DIRA

Basoko 2010-2011 Planean aurreikusi zen bezala, udan Trikuharrien eta Haritz Zaharren Ibilbidea eta Ibilbide Botanikoa berritu dira. Trikuharriek eta haritz zaharrek balio kultural eta natural handiko bilduma osatzen dute. Horregatik, garrantzitsua da horiek kontserbatu eta zabaltzea. Orain artekoa zaharkitutik gelditu denez, ibilbideak egokitu, bideak garbitu eta seinaleak berritu dira.

Trikuharrien, Haritz Zaharren eta Landareen Ibilbideak Etxarriko Beheko Basoan daude, eta kanpinaren ingurutik hasten dira. Trikuharrien Ibilbidearen barruan 10 trikuharrien arrastoak daude. Bi aukera ditu: luzea (15 kilometro) eta motza (9,7 kilometro). Haritzen Ibilbidean (5 kilometro) tamaina handiko eta forma bitxiko haritzak daude, eta zati batean bat egiten du Ibilbide Botanikoarekin. Ibilbide Botanikoan 31 kartel berri jarri dira, bertako espezieak aipatzen dituztenak. Aurrekoek ez bezala, kartel berriek landareen hostoen argazkia ere badaukate.

Hiru ibilbideak Nafarroako Mendi Federazioaren arauetara egokitu zaizkie, eta hortaz, seinale homologatuak izanik, ibilbideak Nafarroako Xenden Sarean sartu dira. Egitasmoa aurreko legegintzaldian hasitakoaren segida da. Bestalde, ez genuke aipatu gabe utzi nahi panelen hizkuntzaren trataera eta kalitatea ez dela guk nahiko genukeena izan, baina ez dugula garaiz zuzentzeko aukerarik izan.

Joan zen urtean Ahuntzetxea ere berriro zen. Ahuntzetxea Trikuharrien Ibilbidean dagoen aspaldiko borda bat da, eta hemendik aurrera irekita egonen da bertatik pasatzen diren mendizaleei aterpea emateko. Udalaren asmoa da Etxarriko mendi taldeekin harremanetan jartzea, Ahuntzetxeari zein erabilera eman nahi diogun aztertzeko, ideiak biltzeko, eta elkarlanean aritzeko.

Jarduera horien bidez Etxarri Aranazko aisialdirako eta turismorako baliabideak indartu nahi dira. Etxarriar guziak gure basoan ibiltzera gonbidatu nahi ditugu, etxeko atean altxor paregabea daukagu eta.

UDAKO ETA UDAZKENEKO OSPAKIZUNAK

Festa politak

Udalak festen balorazio ona egin du. Eguraldi onak lagunduta, herritarrak kalera atera ziren eta jai giroa nagusitu zen. Aipatu behar dugu festetako aurrekontua jaitsi behar izan dugula, egoera ekonomikoak behartuta. Horren aurrean, bertako taldeen emanaldiak eta formatu txikiko ikuskizunak aukeratu genituen. Orokorrean, udalak antolatutako eta herri ekimenetik sortutako jarduerak erantzun paregabea izan zuten.

Nolanahi ere, badira hobetu beharrekoak. Batetik, heldu den urtean zenbait gauza zuzendu nahiko genituzke lan antolaketari dagokionez. Kintoen Egunari buruz ere gogoeta egin behar dela uste dugu. Bestalde, kezka handia sortu zaigu tabernetako plastikozko edalontziekin sortzen den zaborra dela-eta. Nolanahi ere, asmoa da heldu den urterako Festa Batzorde sendo bat sustatzea, eta festak are parte-hartzaileagoak izatea.

Artisauak eta kirola nagusi ferietan

Ferietan ere aurrekontua murriztu behar izan da. Konparazio baterako, 5.826,45 € aurreztu dira kalesa eta txahal erreka kenduta. Hala ere, larunbat arratsaldean artisau azokak, Sakanako Gazta Txapelketak eta haurrendako antzerkiak giro polita jarri zuten plazan.

Aipatzekoa da, bestalde, kirol jarduerak izan duten pisua. Batetik, herriko elkarteek (*Gure Pilota* eta *Udaberri*) antolatutako pala eta pilota jaialdia eta mendi lasterketa izan ditugu, eta bestetik, goi-mailako aizkora eta pilota erakustaldiez

gozatzeko aukera izan genuen. Profesionalen pilota partidari dagokionez, nabarmendu nahi dugu udalari ohi baino merkeagoa atera zaiola, lortu baitzen ASPE sarreren eta 1.200 euroren truke etortzea, saioa telebistaz eman zutelako. Hortaz, punta-puntako partida ikusteko aukera izan genuen, aurrekontutik atera gabe. Bestalde, esan beharra dago ikuskizun honekin ikasi dugula hizkuntza trataeraren gainean estu-estu egon beharra dagoela, oharkabean ustekabeak egon daitezkeelako. Izan ere, enpresak azken mementoan partida ikusteko txartelak gaztelania hutsean saldu zituen.

Udala herritarrek antolatutako ekimenen laguntzaile

Artie Kalia taldeko etxarriarrek antolatuta, irailaren 18an Artie Kalia Egune ospatu zen. Nahiz eta eguraldi kaskarra egin, eguna ederra izan zen, eta herritar guztiok harrিতuta gelditu ginen bertan dauzkagun artistekin. Udala ekimen honen laguntzaile izan da, eguneko gastuak bere gain hartuz.

Bestalde, irailaren 25ean Etorkizuna Dantza Eskolak eta Etxarriko abesbatzak ikuskizun ederra eman zuten. Ikuskizun hau bigarren aldiz antolatu da, eta udalak antolaketa eta finantziario lanetan lagundu du.

Ferien ondoren, berriz, ohitura bihurtu da Ziza eta Landare Erakusketa, *Harzabal elkarteko Mikologia eta Landare Sailaren* ahaleginari esker antolatzen dena. Udalak erakusketa hori ere babestu du.

80.000 EUROKO AURREKONTUA URTE GUZTIKO OSPAKIZUNETARAKO

Hona 2011 urteko ospakizunen gastuak, xehe-xehe (77.231,55 € osotara):

URTE OSOKO ORKESTRAK (19.841 €)	
San Kiriko	1.300 €
San Adrian	2.596 €
Festak (larunbata)	2.200 €
Festak (igandea)	1.947 €
Festak (astelehena)	2.478 €
Festak (asteartea)	2.596 €
Festak (asteazkena)	2.124 €
Festak (osteguna)	0 €
Feriak (larunbata)	2.100 €
Feriak (igandea)	708 €
Ama Birjinaren Eguna	1.800 €

URTE OSOKO AUZATEAK (2.350 €)

FESTA NAGUSIAK (29.133,03 €)	
LARUNBATA	
Uharte Arakilgo erraldoiak	800 €
Suziria eta igandeko 2 saio (gaiteroak)	325 €

Kartel lehiaketako sariak	400 €
Luntxa	252,99 €
Ehiza ibilbidea	250 €
Irurtzango dantzariak	250 €
Lakuntzako dantzariak	250 €
Auzaterako ogiak	99 €
IGANDEA	
Eguerdiko Kontzertua (Kantiruki)	1.475 €
Ludotren	1.296 €
Zoo park	1.944 €
Herri Kirolak (aizkora + fardoak)	2.200 €
ASTELEHENA (koadrilen eguna)	
Bertsolariak	1.436,60 €
Hodei Magoa	250 €
Haur antzerkia (Argotu)	1.298 €
Kalejirako txaranga zerbitzua	177 €
Kalejirako txaranga	1.350 €
ASTEARTEA (haurren eguna)	
Jolasparkea	1.620 €
Txu-txu trenea	1.180 €
Eguerdiko kontzertua (Etxamendi Eta Larralde)	1.475 €
Play-Back txapelketa	370 €
Play back-a Aurkezlea	90 €
ASTEAZKENA (jubilatuen eguna)	
Jubilatuendako bazkaria	3.467,44 €
Euskaraokea (aurkezlea)	90 €
Kontzertua (Las Morenas de Mexico)	2.360 €
Bixente Setoain soinu-jolea	531 €
Jubilatuendako puroak	72 €
Circortito	1.416 €
OSTEGUNA (kintoen eguna)	
Txirindularitza (kadeteak)	2.405 €
Festetako zezensuzkoa	108 €

FERIAK (10282,80 €)	
Hartzabal mikologia	700,00 €
Inprenta (sarrerak, kartelak...)	389,40 €
Kukubiltxo, Txirrikiz	1.888,00 €
Artisauak	1.320 €
Gazta Txapelketa	240 €
Sariak	210 €
Aurkezlea	90 €
Mendi igoera (Udaberri Elkarte)	1.238 €

Egurra jaistea	700 €
Aizkora Txapelketa	1.800 €
Sakanako Trikitixa Eskola	200 €
Sormen tailerrak	590,00 €
Pilota (dirulaguntza)	1.200,00 €
Zezensuzkoa eramatea	36 €

URTE OSOKO BESTE GASTU BATZUK	
San Kiriko merienda	254,05 €
San Adriango bazkaria	390 €
Komunak (San Kiriko eta San Adrian)	392,08 €
Haragia (San Adrian)	675 €
Fritada (San Adrian)	226,03 €
Ogia	99 €
Anbulantzia (San Adrian)	450 €
Abuztuaren 15eko merienda	300 €
Festa ondorengo larunbatean kaleak garbitzea	912,6 €
Udala apaintzea (Artie Kalia)	195,45 €
Festetako iragarkia (Bierrik)	204,14 €
Urte osoko ardoa	2.500 €
Piroteknia festak	1.797,32 €
Inprenta (festak eta beste batzuk)	785,17 €
Komunak (festak)	577,28 €
Urte osoko txistulariak	750 €
Sonorizazio guzia	1.200 €
Plaka (omenduendako)	22 €
Txirindularitza (ekainak 11)	960 €
Urte osoko SGAE	2.500 €

UDAL IKASTAROAK

Dagoeneko hasiak dira 2011-2012 udal ikastaroak: pintura, dantza latindarrak, soinketa lasaia, aerobic, pilates eta yoga. 130 bat lagunek eman dute izena. Ikastaro horien kostua 15.400,33 eurokoa da, osotara, eta matrikulen bidez lortutako kopurua 9.322,98 eurokoa da. Hau da, udalak gastuaren % 40 hartuko du bere gain.

UDALA GASTUAK GUTXITZEKO AHALGINETAN ARI DA

Udala gastuak gutxitzen ari da, ikusirik egoera ekonomikoa ez dela batere ona, eta heldu den urtean udalak Nafarroako Gobernutik jasotzen duen laguntza nabarmen jaitsiko dela (%30, gutxi gorabehera). Oraintxe udalaren egoera ekonomikoaren diagnostikoa amaitzen ari gara, eta kontuak itxitakoan egoera horren berri emanen dugu buletin baten bidez. Esan beharra dago udal honek ahalegin berezia egingen duela gastuak gutxitzeko, eta ditugun baliabideen kudeaketa estua egiteko. Konparazio

baterako, hona hemen Etxarriko ospakizunen (San Kiriko, San Adrian, Festak, Ama Birjinaren Eguna, Feriak...) aurrekontua azken urteotan:

Urtea	Aurrekontua	Gastua
2005	69.000,00 €	65.965,32 €
2006	68.000,00 €	67.856,44 €
2007	73.133,13 €	73.925,69 €
2008	93.245,52 €	99.768,18 €
2009	100.000,00 €	89.232,95 €
2010	90.000,00 €	95.382,25 €
2011	80.000,00 €	77.235,21 €

Oharra: 2011 urteko kontuetan urrira artekoa besterik ez da azaldu.

DIAGNOSTIKOAREN LEHEN EMAITZAK

0 buletinean aurreratu genizuen udalaren funtzionamendu laboralaren diagnostikoa egiten ari garela. Beharrezkoa genuen informazioa lortzeko, komunikazio plan bat diseinatu genuen, eta bilera erronda bat egin dugu udaleko langile guztiekin, aurretik udalean egondako zenbait ordezkari politikorekin, ordezkari sindikalekin, eta beste udal batzuetako alkaterekin. Une honetan diagnostiko horren emaitzak jasotzen ari gara, eta aurreratu dezakegu hobetu beharreko ildo batzuk antzeman direla honako esparru hauetan: lan-antolaketan eta lan-protokoloetan, eginkizunen banaketaren definizio faltan eta talde lanean.

Hori guztia ikusirik, lan-antolaketa proposamen bat lantzen ari gara gure aholkulari teknikoekin, eta gero langileei eta ordezkari sindikalei aurkeztuko zaie, ekarpenak egin ditzaten. Horretarako, oso lagungarri egin zaizkigu udaleko langileek egindako gogoetak eta proposamenak. Asmoa izanen da udalean talde-lana eta lan-giroa indartzea, etxarriarrei zerbitzu hobea emateko.

ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEKO ZERGA

Jakinarazi nahi dizuegu hasiak garela EIOZ zergaren gaineko azterketa bat egiten (ICIO gaztelaniaz). Aztertzen ari gara Etxarrin zerga hori nola kobratu izan den orain arte, eta prozedura horrek zein ondorio ekonomiko eta judizial izan dituen.

EIOZ (Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga) da herritarrek, enpresek eta erakundeek udalari ordaindu behar dioten zerga, edozein motatako lizentzia urbanistikoak lortzeko. Etxarriar guztiei proposamena egiten diegu gai honen gaineko iritziak edo ekarpenak guri helarazteko. Gaia onduagoa dugunean informazio gehiago emanen dugu.

MUNDIÑO KALEKO OBRA AUZITEGIAN

Arlo urbanistikoan legealdi honetan aurkitu dugun arazoetako bat izan da Mundiño kalean obra bat egiteko eman zen lizentzia (26. Zbk.). Kontua da *TDH Lizarraga* enpresari baimena eman zitzaiola bertan 6 etxebizitza egiteko, aldeko txosten teknikoa zuelako. Bizilagunak ez zeuden ados, eta helegite bat aurkeztu zioten emandako lizentzia baimenari. Orain afera juridiko hau Nafarroako Auzitegi Administratiboan dago.

Kontua auzitegiatara iritsi dela ikusirik, gaur egungo udalak bestelako aholkularitza tekniko bat eskatu du. Orain, nahiz eta obra hasita egon, udala auzian inplikaturako guzkiekin harremanetan dago (enpresa, arkitektoa, abokatu eta bizilagunak) konponbideren bat aurkitu nahian.

OLATZAGUTIAKO PORLANDEGIAREN AURKAKO MOZIOA

Udalak honako mozio hau onartu du:

Portland Valderrivas enpresak Olatzagutian duen porlandegian hondakinak erretzearen aurkako mozioa, 2011ko uztailaren 13ko Osoko Bilkuran onartua. Udalak honako hau eskatzea onartu zuen (7 bozka alde, eta 2 abstentzio):

- 1- Errausketa hondakinak tratatzeko era baztertzea.
- 2- Olatzagutiako jarduera behin betiko gelditzea.
- 3- Altsasuko manifestazioa babestea (uztailean egin zena).
- 4- Hartutako erabakia jakinaraztea Nafarroako Gobernuko Lehendakariari, Nafarroako Parlamentuari, Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuari, Cementos *Portland Valderrivas* enpresari eta hedabideei.

BAKEAREN ETA ESKUBIDE ZIBILEN ALDEKO MOZIOA

Udalak honako mozio hau onartu du:

“Eleak” eskubide zibilen aldeko mugimenduaren mozioa, urrian Madrilgo Auzitegi Nazionalean hamaika gazte nafarren kontra eginen den epaiketa dela-eta (2011ko urriaren 10eko Osoko Bilkuran onartua). Udalak, aho batez, honako hau erabaki du:

- 1- Elkartasuna adieraztea Madrilen epaituko dituzten pertsonen, proiektu guztiak askatasunez defendatzeko eskubidea urratzen duen prozesu judiziala delako.
- 2- Etxarriko udalak bakearekiko eta pertsona guztien eskubide zibilen errespetuarekiko konpromisoa adierazi du. Eta bat egin du urriaren 1ean Iruñean egin zen manifestazioarekin.
- 3- Udalak erabaki horren berri emanen die herritarrei, eta etxarriarrak animatzen ditu bakearen eta askatasun demokratikoak nagusi diren eszenatoki bat lortzeko dinamikan parte har dezaten.

GOI-TENTSIOKO LINEA (ITSASO-ZARRAKAZTELU)

Gipuzkoako eta Nafarroako 50 bat udalek helegiteak aurkeztu dizkiote Itsaso eta Zarrakaztelu lotuko dituen goi-tentsioko lineari. Linea hori Espainiako Sare Elektriakoaren proiektu erraldoi bat da: 400.000 voltio eta 120 kilometro izanen ditu; 6 bat hektarea harrapatuko ditu; 45 bat metroko dorrez josiko dituzte gure herri eta parajeak; 150 herritatik pasatuko da, eta Sakana zeharkatuko du.

Etxarriko udala ere kezkatuta dago egitasmo horrek gure inguruneari ekarriko dizkion kalteekin, eta bat egin du helegite horiekin. Hemendik aurrera Sakanan eta Sakanatik kanpo gai horren inguruan sortuko diren ekimenetan ere parte hartuko du.

OTSAPORTILLOKO GERTAEREN 75. URTEURRENA

Etxarri Aranazko Udalak eta Otsaportillon hildakoen senideek Otsaportilloko ekitaldia antolatu zuten, irailaren 5ean. Altsasu eta Olatzagutiako Udalek eta *Karrikestu*, *Udaberri* eta *Larrañeta Mendi Elkarteek* ere antolakuntzan lagundu zuten. Ekitaldia oso ederra izan zen eta jende asko elkartu zen.

Ekitaldian parte hartu zuten Eneko Lazkoz eta Joseba Beltza bertsolariak, eta hildakoen senideen izenean Amaia Urkijok eta Maite San Romanek. Bakartxo Ruiz Bilduko parlamentariak eta Etxarriko alkateak ere hitz egin zuten. Ekitaldia bukatzeko, Etxarriko lau dantzarik aureskua dantzatu zuten Jose Ramon Andaren eskulturaren parean.

Etxarriko alkateak adierazi zuenez, Francoren ondoren ireki zen aro berriak ez du egin altxamendu faxistaren biktimek eskatzen duten aitortza, ezta hainbeste merezi duten justizia eta erreparazioa ere. Aldi berean, Etxarriko alkateak salatu zuen trantsizioarekin itxura aldatu bada ere, frankismoan agintea eskutan izan zuten sektoreek segitu dutela benetako boterea kudeatzen.

IZENDATU DIRA HAUTESKUNDEETARAKO MAHAIKIDEAK

Izendatu dira azaroaren 20ko Hauteskunde Orokorretarako mahaikideak. Etxarriko ordezkariak (titularrak eta horien ordezkoak) urriaren 24ko Osoko Bilkuran hautatu ziren, jendaurrean, CONOCE aplikazio informatikoaren bidez zozketa eginda. Hona emaitzak:

UDALERRIA: ETXARRI ARANATZ
HAUTESKUNDE TOKIAREN IZENA: IKASTOLA
HELBIDEA: . LARREÑETA KALEA 9

BARRUTIA: 01 ATALA: 001 MAHAIA: A

MAHAIBURUA

Izena: ESTIBALIZ GARCIANDIA ROMAN

1. ordezkoa (mahaiburuarena)

Izena: JUAN JOSE AZCONA BABACE

2. ordezkoa (mahaiburuarena)

Izena: PEDRO JOSE ANSO URMENETA

1. MAHAIKIDEA

Izena: MIGUEL ESTEBAN DE ASTIZ

1. ordezkoa (1. mahaikidearena)

Izena: JUAN MARIA AGUIRRE GAMBOA

2. ordezkoa (1. mahaikidearena)

Izena: ONINTZA GOÑI IRAURGUI

2. MAHAIKIDEA

Izena: MARIA INMACULADA IGOA ECHARRI

1. ordezkoa (2. mahaikidearena)
Izena: AINTZANE IRIGOIEN ZELAIA
2. ordezkoa (2. mahaikidearena)
Izena: XABIER GARCIANDIA GOÑI

BARRUTIA: 01 ATALA: 001 MAHAIA: B

MAHAIBURUA

- Izena: JUAN JOSE MUNDIÑANO CEBERIO
1. ordezkoa (mahaiburuarena)
Izena: JOSE MIGUEL RAZQUIN OROBENGOA
 2. ordezkoa (mahaiburuarena)
Izena: EVA MARIA PALAZUELOS MARCOTEGUI

1. MAHAIKIDEA

- Izena: JESUS MARIA MORENTIN JACA
1. ordezkoa (1. mahaikidearena)
Izena: NEKANE JACA GARCIANDIA
 2. ordezkoa (1. mahaikidearena)
Izena: ANGEL JAVIER LOPEZ URMENETA

2. MAHAIKIDEA

- Izena: BERNARDINO MARROYO PALOMO
- 1.- ordezkoa (2. mahaikidearena)
Izena: MARIA VICTORIA LIZARRAGA SENAR
 2. ordezkoa (2. mahaikidearena)
Izena: JESUS MARIA MENDINUETA FLORES

BARRUTIA: 02 ATALA: 001 MAHAIA: A

MAHAIBURUA

- Izena: FERNANDO FLORES LAZCOZ
1. ordezkoa (mahaiburuarena)
Izena: GARIKOITZ GARCIANDIA URBIZTONDO
 2. ordezkoa (mahaiburuarena)
Izena: FRANCISCO JAVIER ASENSIO IGOA

1. MAHAIKIDEA

- Izena: MAIALEN IJURRA GARMENDIA
1. ordezkoa (1. mahaikidearena)
Izena: MARIA MAGDALENA ARTIEDA BELZA
 2. ordezkoa (1. mahaikidearena)
Izena: EVA ALBERTO BANDERA

2. MAHAIKIDEA

- Izena: MARIA LETICIA IGOA ERDOCIA
- 1.- ordezkoa (2. mahaikidearena)
Izena: JOSEBA DAVID CABALLE AYESTARAN

2. ordezkoa (2. mahaikidearena)
Izena: OSCAR CORROZA BOROBIA

BARRUTIA: 02 ATALA: 001 MAHAIA: B

MAHAIBURUA

- Izena: JUAN RAMON SAN MARTIN PEREZ
1. ordezkoa (mahaiburuarena)
Izena: LUR IOSU LARRAZA LOPEZ
2. ordezkoa (mahaiburuarena)
Izena: MIKEL GARIKOITZ OIARBIDE ZABALA

1. MAHAIKIDEA

- Izena: WILMAN HIPATIA MORETA PALACIOS
1. ordezkoa (1. mahaikidearena)
Izena: FRANCISCO JAVIER JACA ARBIZU
2. ordezkoa (1. mahaikidearena)
Izena: MANUEL MARIA MAÑERU IGOA

2. MAHAIKIDEA

- Izena: JONATAN JIMENEZ JIMENEZ
1. ordezkoa (2. mahaikidearena)
Izena: MARIA INMACULADA RIEGO GARCIA
2. ordezkoa (2. mahaikidearena)
Izena: ARITZ LOPEZ DE ZUBIRIA AGUIRRE